

## **GAINPOPULAZIORIK? EZ, MILA ESKER**

Biztanleria demografikoki kontrolatzeko estrategia bat edukitzea ezinbestekoa da. Bertoko biztanleria ez ezik, kanpotik etorritakoa ere kontrolatu behar dugu-eta: etorkinak, errufuxiatuak, eta abar. Batez ere ehunka mila iristen direnean.

Nik ahalegin bat egin dezaket eta honako hau esan: “200.000 pertsona aterpetuko ditugu”. Ados, ez da huskeriarik. Ahalegin bat egin beharko dugu, kulturen arteko talka txiki bat sortuko da, eta tentsio pixka bat. Baliabideak beharko dira eta logistika handi bat jarri beharko da martxan. Egongo da zer egin, dudarik gabe!

Ederki. Aurrera, orduan. Elkartasunaren izenean. Jende guztiori bide-bazterrean utzi ezin dugulako. Horrek ondo sentiarazten gaituelako. Pertsona modura hobeto sentiarazi eta sentimendu jator eta ederra delako, baita beharrezkoa ere, abereturik ez amaitzeko, beste kultura batzuetatik etorritako pertsonak “gauza” batzuk balira bezala ikusten ez amaitzeko. Primeran.

Baina... zer gertatuko da ugaltzen hasten badira euren herrialdean bizitzen jarraituko balute bezala, hau da, euren ohituren, azturen, dogma erlijioso eta kulturalen arabera ugaltzen hasiko balira, orduan zer?

Afrikako arazorik handienetako bat gainpopulazioa da. Afrikako kontinentearen lurralde askotan du eragina –fauna, flora eta natura bera arrisku bizian jartzearaino—. Beraz, ingurumenaren ikuspuntutik ere ondorio benetan latzak ditu; eta kontrol orotatik kanpo dagoen demografia bati buruz ari garenez, begi-bistakoa da horrek dauzkan ondorioak izugarriak direla Afrikako jendearentzat, eta gerrak eta gosete endemikoak baino ez dakarzukiela (badakit egoera horiek azaltzeko kausa gehiago daudela, baina gainpopulazioa horietako bat da).

Zer zegoen hutuen eta tutsien arteko gerraren atzean? Benetako leherketa demografiko bat. Horra zer zegoen. Gainpopulazio alimaleko bat.

Dian Fossey-ren “Gorilak lainocean” liburuan, zeharka bada ere, oso ondo adierazita dago leherketa demografikoak berekin

dakartzan ondorio latzak zertan diren, baita ingurumenaren ikuspuntutik ere: basa-lurraldeak murriztu, espezie enblematikoak (kate trofikoaren goi-goian daudenak) desagertu, lurra gehiegi ustiatu, pertsonak pilatuta bizi, gaitz asko oso zabaldua egon (gaitz horietako batzuk ikaragarriak edota endemikoak izanik, besteak beste: malaria, tifusa, ebola, legenarra, e.a.), egoera bidegabeek bere horretan iraun, haurrak eta gazteak eskolatu ez, primitibismoa jaun eta jabe izan...

Dian Fossey-k oso ondo azaltzen zuen: gizonezkoak bi behi baditu, orduan emazte bat edukiko du; 4 behi izanez gero, orduan izan ditzala bi emazte; eta 12 buruko behi-talde bat izanez gero, a zelako harem puska osatuko duena! Eta kondoirik ez, noski, oso garestiak baitira, edo bekatu larria dira, edo "herriko familiarik ugarienaren saria" irabazi gabe geratuko litzateke senar gajoa! Hori bai, orratz bat bera ere kabitzen ez denean, orduan badakigu zer egingo duten: gerra eder bat. Eta emakumeak berriz ere gerrako harrapakin bihurtuak, ea zeinek munduratzten dituen bortxaketen ondoriozko seme-alabarik gehien, haurrak 12 urte bete orduko primeran etorriko baitzaizkie hurrengo gerra baterako!

Antzeko zerbait gertatzen da beste animalia-espezie batzuekin (azken finean zer gara gizakiok, animalia-espezie bat gehiago baino?). Espezieak taldeetan edo klanetan antolatu ohi dira; lurralde bat beretzat hartu eta kontrolatu egiten dute; eta jarraian, hurrengo belaunaldiak zabalduz doaz, lehenik jatorrizko lurraldean, bigarrenik aldameneko lurraldeetan; eta azkenik –gizakion kasuan, eta garraiobide modernoeri esker–, sortzetiko lurraldetik oso urrun dauden lekuetan zabaltzen amaitzen dute.

Hortaz, miseriatik ihesi etortzeaz gain, bizimodu hobeago baten bila etortzeaz gain, edota arrazoi ideologikoengatik, jazarpen politikoengatik, e.a. etortzeaz gain, kanpotar asko lurralde bila ere etortzen dira, euren hazia bertan ereiteko asmoz eta euren lurraldean autosuntsitzera eraman dituen ziklo berberari hasiera emateko pozez.

Alegia, euren jatorrizko lurraldean zeuzkaten jokabideak (beraien kulturari, bizimoduari eta ugaltze- eta gizarte-ohiturei lotutakoak)

errepikatzen hasten dira hemen, horrek berekin dakartzan ondorio negatibo guztiekin. Eta hor dago koska, hor dago arazoa.

Eta mundu musulmanaren kasuan, antzeko zerbeit gertatzen dela uste dut (erlijio musulmana ez dago Ipar Afrikara mugatuta; aitzitik, Afrika mendebaldean eta ekialdean ere oso zabalduta dago). Eta badakigu musulmanen kultura emakumearen lekua zein den: “hanka hautsita, eta etxean”. Egiten zer? Seme-alabak egiten. Eta kondoia erabiltzea debekatuta daukatenez (bestela, infernura joango baitira), eta familia bakoitzak seme-alaba pilo bat ez edukitzea iraingarria denez, azkenean eskuartean daukaguna biderketa soil bat baino ez da:

Ugaltzeko adinean dauden 200.000 emakume musulman gaztek euren ugaltze-ziklo guztian ekartzen baldin badituzte 4, 6 edo 8 seme-alaba familia-unitate bakoitzeko, zenbateraino zabalduko da gure lurraldean biztanleria musulmana? Hona erantzuna:  $200.000 \times 6 = 1.200.000$ ;  $200.000 \times 8 = 1.600.000$ ;  $200.000 \times 4 = 800.000$ . Zenbat denboran? Ugaltzeko belaunaldi bakarrean. Eta belaunaldi berriak 18 urterekin (edo lehenago) hasiko direnez aktiboki ugaltzeko izaten... ba jarrai dezagun biderketak egiten! Hori bai, beti ere kontuan hartuta, ezen, belaunaldi ugaltzeko baten zikloa amaitzen denerako, hurrengo belaunaldiaren ugaltze-zikloa 20 urte lehenago gutxienez abiatua dela. Beraz, “heldu gogor, bihurtu gero eta”.

Eta orain, galdera bat egingo dizuet: Euskadin bikoteen batez besteko ugaltze-ratioa, zein da? Bada, ez dut uste 1,5 haur izatera heltzen denik (ugaltze-ziklo guztian). Hortaz,  $200.000 \times 1,5 = 300.000$ .

300.000 jaiotza versus 1.200.000/1.600.000/800.000.

Zer? Jarraitu behar al da adierazten jaiotza-desoreka horren ondorioa zein den, edo igarri duzue honez gero...?

Biztanleria musulmana jarri dut adibide gisa, arrazoi erlijiosoengatik euren sexualitatea oso bideratuta baitago ugaltzeko, eta horregatik, familia ugariak sortzeko joera izan ohi dute; eta beste horrenbeste gertatzen da familia kristau buru-beroekin (“familia ugariak boterera!”). Horrek argi eta garbi jartzen du agerian erlijioen

izaera zeinen primitiboa eta “basic” den; izan ere, erlijioen sena zerutarra den ez dakit, baina basati samarra dela zalantza gutxi nik. Eta gauza bera esan genezake hirugarren munduko hainbat eta hainbat herrialderi buruz, horietako batzuk aipatuak dagoeneko (Afrika, India) eta aipatzeko modukoak beste batzuk: Hego Amerikako herrialde ugari, Asia...

Gauzak horrela, kontrolik gabeko leherketa demografikora eramaten gaituzten arrazoiak estu lotuta azaltzen zaizkigu erlijioekin, kultura tradizionalekin, hirugarren munduarekin, erdi aroko ikuspegiekin, primitibismoarekin, eta abarrekin, eta abarrekin.

Hazkunde erlatiboaren eta absolutuaren arabera ordenaturik dauden taula batzuei begiradatxo bat botatzea oso argigarria gerta dakiguke hemen diodan guztia hobeto ulertzeko. Aipatutako taulak erraz topatuko dituzue Interneten eta berehala ohartuko zarete, alde batetik, lerro hauetan esaten dudana berretsi baino ez dutela egiten, eta beste alde batetik, minimoki adimentsua den inor ez dela harrিতa egongo “Pernandoren egia” biribil hau egiaztatzean: kontrolik gabeko hazkunde demografikoa txirotasun, gerrate, miseria, gose, bidegabekeria eta era horretako hitzen sinonimoa dela.

Hemen, gure herrian, mendebaldeko gure kulturen alegia, ez dugu uste emakumea ugaltzeko bakarrik dagoenik. Gehienon iritziz, emakume batek bizitza profesional bat edukitzeko eskubidea du. Eta emakume eta euren bikotekide horietako askok nahiago izaten dute seme-alaba bat edo bi izatea, eta gero, umeak munduratzeaz gain, seme-alaba bakan horiei hezkuntza –on– bat ematea, Espainiako gerra-ostean hain arruntak izan ziren familia ugari eta beti-gose haiekin gure bizitzak izorratu ordez.

Eta ez dezagun ahaztu gizon eta emakume askok erabakitzen dutela ondorengorik ez izatea, arrazoi sinple batengatik: bekokitik ateratzen zaielako. Hori ere baleko aukera bat da-eta (untxientzat, ezjakinentzat eta buru-bero erlijiosoentzat izan ezik).

Berariaz, zergatik izango da diktadore higuinarririk gehientsuenei ikaragarri gustatu izan zaiela beti “familia ugari” kontzeptua?

Francori, Hitlerri, buruzagi sasilaikoak edota lotsagabeki eta fanatikoki erlijiosoak diren buruzagiei, eta enparauei.

Txinatarrek kontrol demografikoa ezarri zuten. Hala eta guztiz ere, kostata lortzen dute euren biztanleria izugarri handia kudeatzea, munduan euren herria nahiko ondo kokatzea lortu badute ere... Baina, zer izango litzateke Txinaz (eta gure planetaz) txinatar familia bakoitzean nahi adina seme-alaba izateko aukera izango balute...?

Ez gara marabunta. Ez gara inurriak. Ez gaude hemen soilik umeak munduratzeko, gure lurraldean hedatzeko eta lurralde berriak "konkistatzeko". Ez gara animalia hutsak. Suposatzea da adimentsuak garela, eta gure adimena jarri behar dugula inguratzen gaituzten gainerako animalien zerbitzuan eta gizateriaren zerbitzuan, baita planetaren zerbitzuan ere... Erantzukizun bat da.

Gure planeta hurrengo belaunaldiei baldintza onetan helarazteko eskubidea, betebeharra ere badugu eta. Ezin izango dugu hori erdietsi, ordea, tematu egiten bagara gero eta "milioi gehiago" izaten. Kontua ez datza milioi asko izatean, gu geu "asko izatean" baizik. Ez da kantitate-kontua, kalitate-kontua baizik. Ez dugu helburu izan behar Osaba Gilito bihurtzea. Kontua ez datza dirutzak, pertsonak, e.a. pilatzean, ahalik eta zoriontsuenak izatean baizik: etxea, herria, eskualdea eta herrialdea bera gurekin konpartitzen dutenei gure zoriontasuna helarazteko.

Gure izaeran, gure genetikan dago ugaltzea eta ugaritzea. Senetiko bultzada bat da. Eta berau kontrolatuko badugu (sen horrek gu kontrolatu beharrean), lehendabizi, sen horretaz kontziente izan behar dugu. Egia esan, hori egiten dugun lehen aldia ez litzateke izango. Izan ere, ugariak dira barruan daramatzagun animalia-senak, eta gizateriaren bilakaera neurri handi batean sen horiek gainditzearen esku egon da, eta dago; edo, behintzat, sen horiek behar bezala bideratzeko gai izan behar dugu, eta behar izanez gero –zergatik ez?– erreprimitzeko gai izan.

Zergatik etortzen da hainbeste jende Europara etorkizun hobeago baten bila? Zerk bereizten ditu Europa eta hirugarren munduko herrialdeak? Besteak beste, gure jaiotza-indize izugarri baxuek. Bai, kausa gehiago badaude, baina demografia zio horietako bat da.

Nola dago India? Gainpopulazioak jota. Eta gizarte erdifeudalista, erdi-aroko batean amilduta, biztanlerik gehienak kasten araberako gizarte kaxkar batean zatituak, itoak eta baztertuak. Legenarra badago. Txirotasuna erabatekoa da. Eta horren erruak, noski, zerikusi handia du eztanda demografikoarekin.

Eztanda demografiko hori hemen, gure etxean, gertatzea uzten badugu, galduta egongo gara. Hori ezin da jarraitu beharreko bidea izan. Eta zerbait egin ezik, konturatu nahi dugunerako, beranduegi izango da. Gerrak saihestu nahi baditugu, jaiotza-tasak, indize demografikoak nola edo hala kontrolatu beharko ditugu, eta oreka demografiko bat bermatu. Hori gabe, ez dago zer eginik.

Zenbaitetan iruditzen zait eliza katolikoa izugarri pozik dabilela erlijio islamikoaren txupinazo guztionekin, zeren, ia inork ez zuen kasik kristauei buruz, botere eklesiastikoari buruz, Elizari buruz (letra larriz) eta abarrei buruz hitz egiten, noiz-eta, bat-batean, erlijioaren gaiak egunkari guztien lehen orrialdeak bete eta albistegietan gai nagusi (*the number one*) bilakatu den arte. Yihadisten laguntza estimagaitzari esker, noski (titare batean kabitzen da horien burmuina!).

Batzuetan, elkertasunez jokatzearen sentimendu jatorrak gure herriko "bosgarren zutabe" bilaka gaitzake inkontzienteki. Nire ustez, gai hau oso larria da, eta beraz, bai alderdi politikoek bai gizarte-mugimenduek behar adina garrantzia eman eta gaia ondo bideratzeko modua bilatzen hasi beharko lukete.

Hasteko, niretzat oso garrantzitsua izango litzateke honako neurri hau hartzea: gure herrira datozen seme-alabarik gabeko etorkinak eta errefuxiatuak, etorkin edota errefuxiatu gisa gurean bizi diren bitartean, seme-alabarik ezin izatea. Haurdun dauden emakumeen kasuak onartu egingo dira, baina kasu horiek bakarrik. Luzaro geratzekoak diren familia-unitateen kasuan, berriz, nik, etorkin/errefuxiatuen familia bakoitzeko, seme-alaba bat baino ez nuke onartuko. Halaber, seme-alabak badituzten etorkinei/errefuxiatuei ere harrera egitea proposatuko nuke bi aldiz pentsatu gabe, bai, baina etorkin edo errefuxiatu gisa gurean bizi diren bitartean familia handitzea debekatuta izan beharko lukete.

Horiek dira, adibidez, martxan jar litezkeen neurrietako batzuk. Baina neurri horiek ezin dira paper bustia izan; legez onartuz gero, indarrean jarri eta betearazi egin beharko lirateke. Eta ea zer lortuko genukeen horrekin? Bada, 200.000 etorkin/errefuxiatu horiek urte gutxitan 800.000, 1.200.000 edota 1.600.000 ez izatea. Zer esanik ez, hemen bizitzen geratzea erabakiko balute...

Eta horrela, zenbait urteren buruan, 200.000 etorkin edo errefuxiatu horien hazkundera eta bertoko biztanleriaren hazkundera erlatiboki oso antzekoak izango zirenez, gauzen oreka naturalari eusten jarraitu ahal izango genioke aparteko arazorik gabe.

Bertoko familia-unitateei 2 seme-alaba gehienez edukitzea iradokitzeke bezain ausarta ea izango al nintzatekeen? Bai, jakina baietz. Eta bost axola zait biztanleriaren zaharkitzea. Pentsioen sistema osoa kontrolik gabeko jaiotza-tasa batean (gainpopulazioan alegia) euskarritu nahi izatea, gezurrezko finantza-etxe piramidal horienak bezainbesteko iruzur nazkagarria iruditzen zait, era horretako egitura piramidalek hasieran baino ez baitute funtzionatzen, baina gaurko ogia eta biharko gosea baizik ez dira; edota amets hutsa, lehenago edo beranduago amesgaizto bilakatzen dena.

Eta gauza bat argi eta garbi utzi nahi dut: beste herrialde batzuetatik eta beste kultura batzuetatik iritsitako pertsonen osatutako gizarte batean bizitzeko ez daukat inongo arazorik. Gure planeta populatzen duten hainbat arrazaz eta hainbat kulturaz osatutako gizarte batean bizitzeko arazorik ez nire aldetik. Aitzitik, munduko arraza eta kultura guztiak iruditzen zaizkit ederrak eta zoragarriak, giza bilakaeraren emaitza. Eta ez litzaidake bat ere inportako benetako arraza- eta kultura-arragoa batean bizitzea. Ez dut inongo arazorik giza arrazak gurutza daitezen eta arraza eta kultura berriak, arraza mistoak, bestelako herriak sorraraz ditzaten. Aitzitik, benenetan uste dut horrek gizateriaren "izerdia" berrituko lukeela eta gure egituraketa genetikoa aberastea lortuko genukeela, giza arraza osoari bultzada berri bat emateraino.

Areago, ni euskalduna izanik, kultura- eta hizkuntza-dibertsitate handiko gizarte batean bizitzeak gure kultura eta gure hizkuntza

hobeto babesten lagunduko ligukeela uste dut. Zergatik? Espainierazko eta frantsesezko ozeanoetan euskara, erraz diluitzeko joera izanik, ur-tanta bat bezalakoa delako. Hizkuntza eta kultura askorekin batera bizitzeak euskara errazago babesten lagun liezaguke, euskaldunon hizkuntza ia-ia oharkabean pasatuko bailitzateke hizkuntza erraldoien aurretik, eta azken batean, gure euskarak era askotariko gizarte koloretsu batekin hobeto mimetizatzeko aukera izango luke, hizkuntza handiek ezartzen duten hegemoniaren balantza “orekatuz”.

Euren sortzetiko herrialdean egitura politiko, sozial eta ekonomiko guztiz primitiboak eta desfasatuak mantentzen dituzten pertsonen gure herrira ehunka mila etortzen uztea, eta gaizki ulerturiko elkartasun-arrazoiengatik horrelako egiturak gure herrian “klonatzeko” uztea erokeria dela iruditzen zait, ez dut uste batere ideia ona denik. Hori ez da elkartasuna; hori ahultasuna da.

Eta nik dakidala, hori saihesteko bide bakarra dago: jaiotzen gaineko kontrola.